

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko maiatzaren 12ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Zerga premiazko araugintzako dekretuak:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, maiatzaren 12koa. Onestea Arabako zerga-araudia ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretura egokitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, maiatzaren 12koa. Onespena ematea COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak harteari.

– **Erabakiak:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 205/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion 2019ko probintzia eta estatu kuotak banatzea Arabako Lurralde Historikoko udalen artean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 206/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea foru arau proiektua, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren eskuetara itzuliko baitira Arabako Ekialde Lautadako Urkidetzari emandako ondasunak, hura desegin delako; eta foru arau proiektua Batzar Nagusietara bidaltzea, arauz izapidetu dadin.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 207/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea huts zuzenketa, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren azken likidazioan lortutako zenbatekoak finantzaketa lerrotik datozen funtsen amortizazio aurreratuari aplikatzea onesten duen martxoaren 17ko 162/2020 Erabakikoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 208/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Baimentzea epe luzeko zorpetze eragiketa jakin batzuen birfinantzaketa, Vitoria-Gasteizko Udalak eskatua.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 209/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea prozedura ireki erraztuaren bidez "Foru sareko errepideetan bide segurtasuna hobetzea. Prebentzio eta arintze jardunak 2020-2021" deritzen lanak kontratatzeke espedientea. Aurrekontua: 592.473,98 euro (BEZa barne); gauzatzeko epea: 9 hilabete.